

## **6. atala.**

### **Irrati-eskaintza**

Azken mende erdian, telebistaren sorrera eta gaur egungo eskaintzaren hiperespezializazioa dira irratigintzak gainditu behar izan dituen erronka handienetakoak. Baldintza tekniko-legal berrietara egokitzea (maiztasun modulatu *versus* uhin ertaina; liberalizazioa; emisio-esparru berriak, digitalizazioa...); kontsumo-portaera desberdinetara malgutzea (lehen etxea eta kotxea eta gaur egun internet ere) eta eskaintza erakargarria egiteko izan dituen barne-iraultzak aipatu beharrekoak dira. Irrati-eskaintzari dagokion iraultza, interesgarria da oso. Izan ere, edukiaren (musika, informazioa, fikzioa...) eta formatuaren (albistegia, lehiaketa, kirol-erretransmisioa) arteko harremanetan irratia beti izan da azkarra eta sormenez betea. Irrati-eskaintzak bilakaera horizontala eta bertikala eduki ditu aldi berean. Lehenak, generoen birdefinizioa, generoen arteko hibridazioa eta edukia eta formatuaren arteko konbinaketa posible guztiak ekarri ditu. Bigarrenak, barnera begira egin beharreko garapenean, genero batzuen inguruan egituratu den irratigintza berezitua azpimarratzen du: adinean, nortasunean, hizkuntzan, zaletasunean edota emisio-eremuan oinarrituta sortu diren irradi berezituak.

## 6. ATALA: IRRATI-ESKAINZA

1. Irratigintza eta eskaintza egituratuz
  - Eskaintza gorpuztu
  - Programazio-ereduak
  - Etorkizunerako joerak gaur egun
  - Irratigintzaren inguruko pertzeptzioa
  - Eskaintza sailkatuz: edukiaren eta formatuaren arteko lehia
2. Generoen definizioa
  - Informazioa
  - Magazinak/Gaurkotasunekoak
  - Kultura
  - Kirolak
  - Hezitzaileak/Zientziari buruzkoak
  - Denbora-pasakoak
  - Musika
  - Fikzioa
  - Erlijiozkoak
  - Publizitatea
3. Genero desberdinen garrantzia gaur egungo irratigintzan
4. Bibliografia
5. Gehigarriak
  - Interesekeo webguneak

## ***1. IRRATIGINTZA ETA ESKAINTZA EGITURATUZ***

### ***1.1. Eskaintza gorpuztu***

Egoera aldakorretara egokitzeko ahalmena izan da, zalantzarik gabe, irriariaren indargunerik azpimarragarrienetarikoa. Gaur egun ere, digitalizazioaren marko orokorrean, irratigintzak tokiz aldatuak ditu bere oinarri teknologikoak eta ekonomikoak, baina berrikuntzak ere badaude irratia entzuteko moduetan eta, oro har, hedabide horren pertzepzio sozialean (Faus, 2001 eta Martínez-Costa, 2001).

Irrati-eskaintzaren errepasso arin bat eginez, hiru elementu horien eragina zenbatekoa izan den ikus daiteke, irratia jaio zenetik gaur egun arte (Martí, 2004: 24-29).

Aurreko ataletan ikusi dugun modura, irratigintzaren sorrera joan zen mendearen 20ko hamarkadan izan zen, eta, orduan, programazioa irratsaio soilen lerraketa hutsa zen ezer baino gehiago. Emisio-ordu urrikoak ziren irratia eta bertan pilatzen zituzten entzungai jarri nahi zituzten saioak, bata bestearen segidan. Orduko programazio-taulek ez zuten inolako batasunik eta, edukiei dagokienez, aniztasun gutxikoak ziren. Hitzaldiak, musika-emankizunak, albiste-irakurketak eta irradi/antzerki-saioak ziren genero aipagarrienak.

30etan, irradi-emisoren kopuruak gora egiteak nolabaiteko kompetentzia ekarri zuen eta, ondorioz, bultzatu nahi ziren programak noiz emitituko ziren eztabaidatzen zen. Hala ere, programaketa-lan hori programatzailearen intuizioaren arabera egiten zen, ez baitzegoen audietzia-ikerketarik.

Ondoko bi hamarkadek, 40koak eta 50ekoak, irratigintzaren aldi nagusia markatzen dute. Masa-hedabidea zen, hizki handietan esanda. Amerikako Estatu Batuetan, irratigintza pribatuaren eredutik jo zenez, publizitate bidezko finantzazioa bilatzen zen eta irratigintza lehiakorra bilakatu zen. Europan, aitzitik, neurri handi batean Bigarren Mundu Gerrak eraginda, publikotasunaren eredutik egin zen aurrera. Tokian tokiko gorabeherekin, hezte, informatzea eta entretenitzea ziren irriari aitortzen zitzaizkion helburuak. Kudeaketari dagokionez, oster, zentralizatua eta aginte politikodunen esku zegoen, eskaintza urria zeukan bi ala hiru programazio, asko jota.

Uhin ertainaren garai hartan irradi gutxi zeuden, beti ere irradi-maiztasun aukera mugatua zelako argudiopean, eta horien kudeaketa publiko oso zikoitza nagusitu zen. 60ko hamarkadan, aldiz, FMren iraultza hasi zen. Maiztasun modulatu erabiliz, irradi-kopurua biderkatu egin zen eta, horrekin batera, eskaintzaren inguruko sakoneko aldaketak. Hala ere, beste faktore eragile bat ageri zen hedabideen panoraman: telebistagintza.

AEBn, irrati-kopuruaren biderketaren, irratigintza konbentzionala deiturikoa-  
ren krisiaren —esatari askok telebistara jo zuten lanera— eta txikituz zihoan  
entzule-kopuruaren ondorioz publizitatearen diru-etorrerak ahultzeak, ordura arteko  
irratigintzaren aldaketa sakona ekarri zuen. Irratigintzak zaharberritzeko ahalmena  
ageria utzi zuen krisialdi hark, lehen esan dugun gisa.

Aipatu dugun sasoi hartan, gainera, besteak beste, aldaketa sozial interes-  
garriak gertatu ziren, eta horien eragina irratigintzan ere sumatu zen. Hiru aipatuko  
ditugu Martí-ri jarraiki. Diskogintza jaio eta industria gisa bidea egiten hasi zen.  
“Moderno” deitu zen musika modan jarri zen, eta sozialki eraginkorra eta ekono-  
mikoki aprobetxagarria zela ikusi zen. Bigarrena, gazteria multzo sozial emergente  
gisa loratu izana. Egitura sozialean, ordura arte ez bezala, gazte izatea nortasun  
propioa edukitzeaz parekatzen zen, eta hori kultura- eta kontsumo-portaera bere-  
zietz horniturik etorri zen. Hirugarrena, FMa irratia egiteko modu definitua eta  
propioa zela erakusten hasi zen. Programazioaren espezializazioa eta musikak gero  
eta pisu gehiago irabazi izanak bilakaera horren elementu aipaga-rrienak dira.  
Entzuleriari dagokionez, masa heterogeneoa baino gehiago, multzo berezien eta  
definituen kotzeptua erabiltzen hasi zen. Segmentu sozial horiei begira egiten ziren  
programazio propioak.

Aldaketak beste era batera eta motelago egin ziren European, norabide berean  
bazihoazen ere. Eredu publikoa nagusitu zen, beraz, Estatu espainiarreko kudeaketa  
mistoa salbuespen bat zen orduan. AMren eta FMren arteko jokoa mantendu egin  
da, eta gaur egun ere hainbat irratik teknologia bien bidez aireraten dituzte pro-  
gramazio berberak. Hala ere, 70eko hamarkadaren azken urteetako aldaketak  
sakonak izan ziren. Irratigintza librea eta FMak ahalbideraturiko eskaintza berria  
eta freskoa elkar-elikatu ziren. Berehalaxe etorri zen birrarauketa eta, neurri handi  
batean, mo-nopolioan sortu eta garatu zen irratigintzaren sustraietako bilakaera.  
Eskaintzaren biderketa, audientzia zehatzak eta definituak lortu izana, komertzia-  
lizazioa, eskaintza-formula eta formatu berriak aplikatzea, lehiakortasuna eta  
berrikuntza dira orduan hasi eta gaur egun ere nagusi diren joerak.

## ***1.2. Programazio-ereduak***

Bi izaten dira irratsaiioetan eta irrati-programazioetan gehien eragiten duten  
elementuak: edukia eta egitura. Jorratzen diren gaia eta eduki hori nola aurkezten  
den, nolako osaera formala duen eta nolako itxura ematen zaion, alegia.

Lehen ikusi dugun modura, irratigintzaren bilakaera historikoan teknologiak,  
arauketa legalak, egoera ekonomikoak, beste hedabideen hedadura eta kontsumo-  
moduek eragin handia izan dute eta baita edukiko ere. Elementu horien kombina-  
zioan proportzioak aldatuz joan dira denboraren poderioz, eta horrek ekarri du,  
beste batzuen artean, programazio-ereduak sortzea.

**Irratiko programazio-eredu nagusienak.****OROTARIKOA:**

(Konbentzionala; Orokorra; Totala; Tradizionala...)

- **MOSAIKOA**
- **MULTZOKAKOA**  
(Kontainerra; Blokea)
- **KONTINUITATEZKOA**  
(Saski-naskia; Jarraitutasunezkoa...)

**BEREZITUA:**

- **TEMATIKOA**
- **FORMATU ITXIKOA**

Han eta hemen dauden irratien programazioari begirada bat emanez, bi eredu nagusi daudela ikus daiteke. Lehena, aintzinakoena baina gaur egunera egokitzen jakin izan duena, orotarikoa. Bigarrena, aldiz, populazio osora baino gehiago, horren baitako jende-multzo zehatzagoetara zuzendurikoa da: programazio berezitua.

**Orotariko programazioa** (zerbitzu orokorrekoa, totala, tradizionala edo konbentzionala ere deitua izan dena), oinarri-oinarrian, edukiz, generoz eta xedetaldez oso irekia izan da. Gaur egun, bere horretan baino gehiago, gaur egungo baldintzetara moldatuz jakin izan duen eredu honek lau elementu hauek izaten ditu presente (Martí, 1990 eta 2004):

- ugaritasuna bere edukietan: tematikoki oso irekia.
- genero eta formatu askotatik hartzen ditu elementuak: baditu multzoka antolatutako saioak, baita mikrosaiokak eta denetarikoak.
- audientziaren bizi-ohiturak/ordutegiak kontuan hartuta antolatutako programazioa: lanegunak, jatorduak, aisialdia...
- audientzia desberdinetara (unibertsalera) heltzeko aukera: programa/tratamendu/gai desberdinen bidez askotariko jende-motara heltzeko aukera.

Konbentzionala deitzen den programazioa honetan, denboran zehar garatu diren hiru azpieredu aurki daitezke: Mosaikoa, Kontainerra/Multzokakoa eta Kontinuitatezkoa.

Irratigintzaren lehen urteetan oso famatua izan zen **Mosaikoa** deiturikoa, egituraz eta edukiz oso desberdinak diren eta beren artean loturarik ez duten programaz osatzen zen, eta jende ugari bezain heterogeneoa zuen helburu. Famili giroan entzuten zen irratia-sisteman, etxeko guztien gustukoa izan zitekeen programazioa eskaintzea zen kontua. Programazio honetan famatuak egin ziren

irrati-dramak, saio komikoak, ikuskizunak/barietateak eta informazioari eskainitakoak. Iraupen zein eduki eta formatu desberdineko saioak tartekatzen direnez, programazioari ez zaio antzematen batasunik eta elkarren arteko loturarik.

Konbentzionala deitzen den irratigintzan beste eredu bat **Multzokakoa/Kontainerra** da. Aurrekoaren ondorio bat da, eta oinarri-oinarrian hainbat elementu parekagarri ditu. Esaterako, programa-ugaritasunean eta heterogeneotasunean galdu gabe, nolabaiteko batasuna eskuratzen duen produktu bat eraikitzean datza, desberdinak ziren tarte solteak pilatuz eta izen bereko makrosaio batean kokatuz. Hitz gutxitan esanda, programa-mota desberdinak batean lekutzeko eta urtzeko ahalmena duen formatua da. Bertan magazina da genero erabiliena eta aurkezle/esatari bakarraren gidaritzapean haragitzen da. Horregatik, agian, irratigintza-mota honi kontainerra deitu izan zaio. Cebrian-en esanetan (1983), programaren aurkezleak lehen solte eta isolatuta zeuden edukiei batasuna eta homogenotasuna ematen die. Izen handiko esatariek produktu-marka ematen diote irratsaioari, fidelizazioa erraztuz eta, gainera, publizitatea beste edukiekin batera txerta dadin ingurune egokia sortuz. Blokeka antolatutako emisioak eguna lauzpabost zatitan banatu eta bakoitzean magazin erraldoi bat kokatzen du, ordu horietan egon daitezkeen entzuleen gustuetara egokituz.

Azkenik, beti ere konbentzionala deituriko irratigintzaren barruan, **Kontinuitatean** eginikoa aipatuko dugu. Tematikoki informazioa hartzen du ardatz nagusi modura eta emanaldi osoko programazioa albiste zein gertakari garrantzitsu baten inguruan artikulatzeko joera izaten du —gertakari garrantzitsuak direnean, egun osoa, eta, bestela, goizeko ordurik preziatuenak—. Palinsesto irekia deituriko honetan, informazioaren nagusitasuna azpimarratzen da, eta bere inguruan antolatzen dira genero periodistikoak: erreportajeak, elkarrizketak, flashak, e.a.

Kontinuitatean eginiko irratigintza-eredu honek, sarritan, irratiaren baliabideen erakuslehioa izaten da. Irrati handietan eta informatiboki oso garrantzitsuak diren gertakarietan, generoak, ekipoak, edukiak eta abar itzelak izaten dira. Aldiz, txikiagoak diren irratietan, produkzio-baliabide eskasia dela medio, eguneroko zailtasun nahikoa izaten da eguneroko gai baten inguruan programa osatzea.

Orotariko programazioa alde batera utziz, sar gaitezen orain **Berezitua** deitu izan den irratigintzan. Lehen ere ikusi dugun modura, irratigintza konbentzionaletik espezializaturako bidean asko dira eragin izan duten faktoreak, besteak beste: telebistaren garapena, aldaketa teknologikoak (AMtik FMrako jauzia), soziologikoa (ikerketek maila sozio-demografikoen garrantzia zehazten hasi ziren), legalak (birrarauketa, deszentralizazioa...), komertzialak (konpetentzia areagotuz publizitatea erakartzeko borroka) eta produktiboak.

Irratigintza Berezituak (gure inguruan *generic radio*, *nouvelle radio* eta *spezialiserte kanale* izenaz ezagutu dena) programen edukiak eta xede-taldeak oso definituak izan ditu beti. Marti-k dioen bezala: “Irratigintza berezitua audientzia potentzialaren segmentu zehatz-mehatzetara eta, beraz, izaera propio dutenen arketipoetara zuzenduriko emisioetan musika edo albistegiak edo beste edonolako eduki monotematikoen bidez definituriko programazio-tankera da” (1990: 101).

Bi dira irratigintza Berezituak dituen ereduak: irradi tematikoa eta formatu itxikoa.

**Irratigintza tematikoari** dagokionez, izenburuak berak adierazten duenez, eduki aldetik alor bakarrean mugitzea da elementurik aipagarriena, musika, informazioa, ekonomia ala dena-delakoa izan daitekeelarik. Gaiak bateratzen duen emanaldian genero eta formatu desberdinak aurki daitezke: albistegiak, lehiaketak, magazinak, e.a. Beraz, irratigintza konbentzionalarekin antz handia du programen egituraketari dagokionez, baina hor dago desberdintasuna, gai bakarrean zentratuta dagoela.

Irratigintza berezituaren baitan, bigarren eredu gisa, **formatu itxikoa** aurki daiteke. Hemen ere, edukiari dagokionez, irradi-emisoraren diskurtsoa monografikoa da, baina honako honetan programa-formatu bakarrak artikulatzen dira eguneko emisio-ordu guztiak. Beraz, kasu honetan, espezializazioa edukietan bezainbeste egitura/formatuan gertatzen da.

Formatu itxikoak hiru ditu elementu bereizgarri: edukia, egitura eta estiloa.

**Edukia** izaten da irradi baten izaeran elementurik markatuena. Gure inguruan bi izaten dira formatu itxikoetan edukirik erabilienak: musika eta informazioa. Bi horiei, nola ez, beste osagarri batzuk gehitu behar/ahal zaizkie: publizitatea eta jendearen parte-hartzea areagotuko duten lehiaketa eta promozioak.

Formatu itxikoaren **egitura** erabakitzeko, oinarri-oinarrian, erabiliko den materialaren iraupena eta emisio-orduetan nola banatuko den erabakiko duen patroia kontuan hartzen dira. Erreferentzia gisa ordua hartzen da (AEBn *Hot Clock* izena ematen zaio), eta bertan kokatzen dira elementu desberdinak: disko salduenen zerrendari errepasoa, asteko kantarik aipagarriena, publizitatea, etab. Gero, eguneko emisio-ordu guztietara zabalduko da *Hot Clock* patroia berbera. Egun osoko emisioa ordubeteko sekuentzian dosifikatzen da.

Formatu itxikoaren **estiloari** dagokionez, zera esan beharra dago, hots, erabil-tzen den lehengaiarekin (kantak, albistek...) eta programazioan aplikatzen den patroiarekin (ordubeteko moldea, esaterako) batera aurkezlearen nortasunak (aurkezpen-mota, entzuleekiko harremana, e.a.) ematen diotela emisioari izaera propioa konpetentziaren jardunetik bereiziz. Irratia bat-batean identifikatu ahal izateko eta entzuleekin zelako harremana eduki nahi den zehazten da aurkezleen bidez —klonikoak diruditenak, bestalde—.

Martí-k aipatzen duenez, AEBko oparotasuna lortu ez badu ere, azken bi hamarkadetan ugaritu egin dira Europan irratigintza berezituaren barruan formatu itxia erabiltzen dutenak (ikus baita ere, Moreno, 2003: 101-140). Hauek dira definituenak:

- Rock-ean eta Pop-ean oinarritutako formatuak, salduenen zerrendak.
- Gaurkotasunaren gurpiletik askeago dauden musika-estiloak. Iragan ertainean ospea lortu duten kantak eta musika-taldeak, “oroitzapeneko musika” delakoa.
- Mundu guztiarentzako irratigintza. Hemen, irratigintza konbentzionala deitu izan dena eta helburu-talde zabal bezain ezaguna duena, sartzen dira.
- Formatu *etnikoak*. Herrialde baten barruan egon daitezkeen kultura desberdinei eskaintako irratia dira: afro-amerikarrak, flamenkoa, euskal musika tradizionala...
- Erlijiozkoak
- Hizketaaldia eta Informazioa. Tankera honetako baitan bi modelo daude: *All Talk* deiturikoa eta *All News* izenaz ezagutzen direnak.

### 1.3. Etorkizunerako joerak gaur egun

Tokian tokiko irratigintzak dituen berezitasunen gainera, bi eredu nagusi daudela esan daiteke, mundu osoari dagokionez. Lehena, liberala, eta inon baino hobeto AEBn garatu dena, irratigintza-espektro araugabetuan erne dena eta kudeaketa komertzialaren paradigma dena. Iratigintza-eredu horretan, programazioa berezitu eta segmentu sozial oso zehatzetara zuzenduz joan da. Bigarren eredu, publikoa, Europan nagusitu dena, orotariko irratigintza deitu izan dena, publiko zabal bezain heterogeneoak izan ditu jomugan eta, sarritan, gurari komertzialik gabe.

Hala ere, AEBko ereduaren garapen geldiezina eta Europako sistemen “desregulazioak” kontrajarriak ziruditen bi eredu horien arteko konbergentziarako bidea erakusten dute, nolabait. Hedabide honen etorkizuna argi-ilunez eta galderaz bete bada ere, bi ereduaren eskaintzan antzekotasunak sumatzen hasiak direla dirudi. AEBko eta Europako irratigintza-sistemaren egoera eta aurrera begirako joerak zeintzuk izan daitezkeen aztertuko dugu ondoren (Franquet, 2003).

Oro har, Amerikako Estatu Batuetako irratigintzaren merkatua heldua da, erabat lehiakorra, komertzialki oso ahalsua eta testuinguruari (eskaintzaren bilakaera, publizitatearen egoera, audientziaren osaera eta eskaera sozialean ematen diren gorabeherak) erantzunez birmoldatu egiten dena etengabe.

AEBko irratigintzan, bereziki bi puntu azpimarratu behar dira (Martí, 2003: 380): lehenik eta behin, lehiakortasunak eskaintza biderkatu eta segmentatu egiten



duela. Hori erabatekoa bada ere irratigintza berezitan, interesgarria da ikustea nola orotariko irratigintzan ere ohiko formatuak moldatu eta gaurkotu behar izan duten.

Bigarrenik, informazioa eta hitza nagusi duten programazioak indartuz doazela hain lehiakorra den AEBko merktuan.

Oso bizia eta malgua den irratigintza-sistema iparramerikarrean, hona orotarikoan zein berezitan sumatzen diren beste elementu batzuk (Martinez-Costa, 2003: 327-329).

Irratigintza konbentzionalari dagokionez:

- audientzia-mailak gora egin du eta bereziki altua da denboraldiaren hasieran, udazkenean alegia, eta gertaera informatibo berezietan;
- populazioaren gehiengoarentzat, irratia ikuspegi lokalerako hedabide proposena da; gertaera informatibo berezietan; hurbileko informazioa eskaintzea eta “zerbitzu publikoa” delakoaren etiketapean egon izan diren gaiak (osasuna, bizi-kalitatea, gizartea, politia, etab.) sendotuz doaz;
- “hitzaren” garrantzia handituz joan den neurrian, gora egin du esatari oso ezagunen eta nortasun handikoen garrantzia eta ospea (tankera honetako emakumezkoak ere ageri dira);

Irratigintza berezituak, bestalde, honako elementu azpimarragarriak ditu gaur egungo AEBko panoraman:

- Helduentzako (*Adult Contemporary*) irratigintza sendo mantentzen da, bere bezeria tinkoa bezain interesgarria zaiolako. Lanean dabilen jendeak osatzen du, ordu luzeko entzulea da eta kontsumo-maila handi samarra du;
- kontrara, gazteagoei zuzenduriko irradi-eskaintza ahulduz doa, eta *Top 40* horietan hain punta-puntakoa den musikak lekua utzi behar izan die betiko *rockandrollari* eta azken hamarkadetako musika-izen ospetsuei;
- *Countrya* gero eta zatituago dago, eta lehendik zegoen espezializazioari irradi gehiago gehitu zaizkio;
- musika latino ardatz modura dutenen euskarrietan audientzia-kopuruak gora egin du, neurri handi batean inmigrazioari esker;
- orain arte musikan espezializatu izan diren irratietan informazioak gero eta leku gehiago duela ikus daiteke;
- azkenik, tematikoki kirolean eta ekonomian zentratutako irratiek kopuruan eta lortzen duten audientzian gora egin dute, nabarmen.

**Programazio-ereduak eta merkatu-kuota AEBko irratigintzan**

Ereduak	Azpiereduak	2002		1992
Country			8,2	18,7
A.C.	A.C	10,4	14,7	17,7
	Hot A.C.	4,3		
News&Talk	News / Talk	9,2	16,5	14,3
	News	2,6		
	Sports	2,5		
	Talk	2,2		
Gold / CR	Oldies	5,1	7,7	9,7
	Classic Hits	1,2		
	'80s	0,8		
	Rhythmic	0,6		
CHR			12,1	10,7
Rock	Rock	2,4	4,2	10
	Active rock	1,8		
UC	Urban	5,6	9,1	7,2
	Urban AC	3,2		
	Urban Oldies	0,3		
Brand / Nostalgia			2,2	2,9
Spanish	Regional Mexican	3,5	8,4	2,1
	SPContem.	2,6		
	Tropical	1,2		
	News	0,6		
	Variety	0,3		
	Tejano	0,1		
	Oldies	0,1		
Alternative			4,2	1,5
NAC			3,1	0,7
B /Easy Listening			-	1,5
Classical			1,5	1,0
Religious	Gospel	0,8	2,7	0,7
	Religious	0,8		
	Christian	0,7		
	Inspirac	0,3		
Progressive			-	0,5
Miscelaneous			0,8	0,3
Jazz			-	0,1

Iturria: Radio & Records Directory aldizkariak argitaratutako datuetan oinarrituta Martí-k eginiko taula (Martí, 2003: 381).

AEBko irratigintzaren nondik norakoaz aritu eta gero, hona hemen Europako merkatuan sumatzen diren joerak. Horretarako, lehen esan dugunaren ildotik, heterogeneoa eta birmoldaketa-aroan murgilduta dagoen irratigintzaz ari garela gogoratu beharra dago. Izan ere, irratigintza publikoa oso sendo zegoen panoramatik kudeaketa mistoa nagusi den sistemara pasatzen ari gara poliki-poliki. Aldaketak motelak dira oso, eta estatu bakoitzean berezitasun propioak dituzte. Edozelan ere, AEBn gertatzen denaren antzera, eskaintza biderkatu eta entzuleria zatitu egiten ari da.

Hiru puntu azpimarratzen ditu Martí-k (2003: 383-384) gaur egungo joerak aztertzean:

- irratigintzaren birrarauketa eta haren ondoriozko liberalizazioa noiz hasi eta nola egin zen zeresan handia du eskaintzan;
- sektore publikoa oso sendo mantentzen da herrialde txikietan eta ahulduz doa merkatu handiagoetan;
- maila berean, estatu handietako audientzia erraldoiak xehetuz doaz eta segmentazioa errealitate bat da dagoeneko;
- orotariko eskaintza sendo mantentzen da eta hitza eta denontzako moduko musika (*middle of the road*) bere horretan diraute osagarri nagusi gisa.

Beraz, esandakoaren ildotik jarraituz, aldaketa-garaian bizi da irratigintza. Iraganare-kin etetea baino gehiago, etorkizunera egokitu beharrean dagoela dirudi. Martinez-Costa-ren esanetan (2004: 321) digitalizazioak eragina izango du produkzio-, transmisio- eta harrera-prozesuetan eta, digitalizazio beraren eraginez, eskaintza biderkatu eta espezializatu egingo da (edukietan eta erabiliko dituen transmisio-euskarrietan), kudeaketa-sistemak ugaritu egingo dira, eta kontsumoa tamainan baino gehiago, erabiliko dituen aparatuei dagokionez aldatuko da.

Martí-k dioen bezala, irratigintzaren leloak aldatuz joan dira erabat, ehun urte eskasean. Hasierako orotariko irratigintzaren eredupean, “bakoitzari bere programa” nagusitu zen eta, gero, irratigintza berezitua sortu zenean, “bakoitzari bere irratia”. Gaur egun, aldiz, irratigintzaren helburua beste bat dela dirudi: “bakoitzari bere zaletasun berezi eta interesgune partikularretan” erantzuten jakitea (Martí, 2003: 384-385).

#### ***1.4. Irratigintzaren inguruko pertzepzioa***

Populazioaren zenbatak entzuten duen irratia eta kontsumo horren iraupena ezagutzeaz gain, medioari buruz jendeak duen iritzian sakondu nahi izaten da, irratigintzaren gaur egungo egoera eta baita ere etorkizunerako indarguneak zeintzuk diren jakiteko.

1922an, John Reith-ek hiru xede ezarri zizkion jaiotzen ari zen BBC irratiari: “...able to educate, inform and entertain”.

Hasierako helburu haiek zituenak eta gaur egun jendeak irratigintzarengandik espero edo eskatzen dituenak, agian ez dira berberak.

CISen datuek erakusten dutenez (2003), ona da jendeak irratigintzaz duen iritzia:

	Oso	Nahiko	Bestelako erantzunak
Entretenigarria	18	68,2	13,8
Askotarikoa	13	65,2	21,8
Hezitzailea	8,8	53,8	37,4
Interesgarria	12,8	64,2	23
Gustu txarrekoa	0,4	4,3	95,3

Iturria: CIS, 2003. 2.541 zenbakidun ikerketa.

Peñafiel-ek, Casado-k eta Fernández-ek dioten bezala: “Agian ez da izango informatuta egoteko jendeak lehen aukeratzen duen hedabidea —informatzeko, egunkaria aukeratzen baitu—, baina sinesgarritasun gehien duen hedabidea dela kontsideratzen da, eguneroko prentsa gertu duelarik eta, atzerago, telebista utziz.” (Peñafiel, Casado eta Fernández, 2003). Hiru ikerlari horien iritziaz bat, CISen datuek konfiantza-maila neurtzean erakusten dutenez, %71,9ra heltzen da “osoa” edo “nahikoa” erantzuten dutenak.

Irratiari buruz populazioak duen pertzeptzio orokorra oso ondo adierazten du Médiamétrie-k eginiko ikerketa batek (Lagardere active publicité, 2004). Bertan, jendeari galdetuta zergatik entzuten duen irratia, honakoak dira puntu gehien jaso zituzten erantzunak:

- Munduan gertatzen denari buruz informatzen du: %86,4
- Eboluzionatzen jakin du: %75,8
- Askotariko musika entzuteko aukera ematen du: %74,6
- Gustuko musika entzuteko aukera ematen du: %73,8
- Entretenigarria da: %72,8
- Modu atseginean hitz egiten du: %70,2
- Azken ordukoaren berri ematen dizu: %69,9
- Konfiantzazkoa da: %62,5
- Hedabide bereziki hurbila da: %62,2
- Eguneroko bizitzarako aholku-emaile ona da: %54,4
- Konpainia ona da egunean zehar: %46

Ikerketa berean<sup>1</sup>, generoen balorapena egitean, hamarretik 8 ala gehiagoko puntuak jaso zituzten generoen sailkapena hauxe da:

– Musika:	%61,3
– Informazioa:	%56,6
– Entretenigarriak:	%25,2
– Meteorologia:	%23,6
– Parte-hartzea:	%19
– Kirolak:	%11,4
– Kultura:	%11,4
– Politika:	%9,3
– Bestelakoak:	%6,5

### ***1.5. Eskaintza sailkatuz: edukiaren eta formatuaren arteko lehia***

Argazkietan, mugituta ateratzen da irratigintza. Geldirik ez dagoenaren seinale. Irratigintza oso malgua dela eta egoera berrietara egokitzen jakin izan duela aipatu dugu lehenago ere. Moldakortasun horren ondorio garbiena irratiz eskaintzen diren edukiak eta horien osaera formalaren arteko dialektika da.

Osagarri formala eta edukia oso erlazionatuta egoten dira beti, eta, irratigintzari dagokionez, bi horien arteko lehiak bultzatu du bere garapena, eta etorkizuneari ere horrela izango da.

Lehenago ikusi dugun modura, orotariko irratigintzan bezala berezitan (tematikoan edo formatu itxikoan), edukiaren eta formatuaren arteko erlazioa estua da beti, eta istilutsua batzuetan.

Ikus dezagun, labu-labur, irratiz antenaratzen dituzten mezuen osagarri formalen eta edukien arteko jokia nolako izan den eta izaten ari den, gaur egun ere.

Irrati-eskaintzaren bilakaera orokorra aztertzerakoan bi dira soma daitezkeen indar-bektoreak: mezua sendotu eta batu nahia, bata, eta formatuaren presioa, bestea.

Lehenak, entzungai jartzen den irratsaio baten zati bat edo programa bere osotasunean zein emisio-taula guztia hartuta ere, irratia irudi orokorraz, estiloaz, nortasunaz eta batasunaz jantzita joateko guraria du. Hasiera bateko irratigintzan, Mosaikoa delakoan, irratsaioak solte, lotura gabe, irratia irudi osoa eskaini gabe antenaratzen ziren. Urte batzuk beranduago, barreiatuta zebilen programazioaren irudia alboratuz, Multzokako programazio-eredua etorri zen. Kontainerraren

---

1. Kopurutan oso antzekoak dira ikerketa hau eta CISena, 2000ko 2.398 zenbakiduna.

metafora erabiliz, irrati-programazioan sartzen denak, berezko nortasuna izanik ere, eredu honen bidez, aurretik eta atzetik dituenekin batzen da, guztion definigarri izango dena sortuz. Saio solte bakoitzaren irudiari irrati-emandegi osoaren nortasuna gailendu zitzaion. Magazina, edukiari batasuna eta izaera komuna ematen dion formatua erabiltzen hasi eta luze garatu da.

Aldi berean, irratigintza berezituak bere eskaintzaren homogenotasuna azpimarratu du, bi bide desberdinetik gainera. Lehena gaiaren bidezkoa, eta bigarrena formatuarekin defini daitekeena. Izan ere, irratigintza berezituak, gai bakarra jorratzen duelako (musika, informazioa, ekonomia, erlijioa...) edota “formatu itxikoa” delako, badu nortasun definitua, berezkoa.

Mezua sendotzeko barne-indarra, beraz, irrati-eredu desberdinen gaintetik dagoen joera da, antzinako eta etorkizuneko irratigintzaren motore dena, gainera.

Bigarren bektore nagusian, formatua dago. Irrati-mezuan, edukiaren eta aspektu formalaren arteko lehian kokatua, erdian, tentsioan eta beti bizirik ageri da formatua.

Irrati-programak definitzerakoan, batzuetan generoetara jotzen da (Informazioa, Kirolak, Fikzioa...), eta bestetan formatuetara. Izan ere, lehenen kasuan, programa zein generotakoa den izaten da erabakigarri, irratsaioa bera nola egituratzen den bigarren mailakoa izanik. Baina, beste kasuetan, formatu horrek, tradizioz ala duen indarragatik —magazinaren kasuan, ageri-agerian—, gaiak baino hobeto markatzen du programaren nortasuna. Zalantzarik gabe, halako kasuetan, formatuak definitzen du programaren izaera.

Orain artekoa ikusita, behintzat, badirudi ezen formatuaren eta generoaren arteko norgehiagokan irabazlerik ez dela egongo, galtzailerik ezta. Gauzak txandaka doaz, eta batzuetan batek eta besteetan besteak izaten ditu puntu gehien.

Hala nola, orotariko irratigintzan —genero ugari izaten dituen horretan— formatu desberdinak ikusi izan dira: erretransmisioak, albistegiak, musika-saioak... baina azken hamarkadetan, magazinak, irratigintzaren lurraldea kolonizatuz doa kuantitatiboki eta kualitatiboki. Edozein izanik ere gaia, magazinak bere arauak inposatzen ditu formatu modura. Gaur egungo orotariko irratigintzan, ordu-pila magazinak okupatzen ditu eta, gainera, ordutegi garrantzitsuenean.

Baina, formatua irratigintza-eredu zaharraren eta berriaren arteko lehia hutsa ez dela adierazteko, hona beste kasu bat: irratigintza berezitan, tematikoan hain zuzen ere, gai bakarraren inguruan asko dira jorratzen diren formatuak (albis-tegiak, elkarrizketak, kanta dedikatuak, iritziak...). Kontrara, eta tipologia amaituz, formatu itxikoa aipatuko dugu. Azken horretan, gai bakarraren inguruan formula bakarra aplikatzen dela azpimarratu beharra dago. Izan ere, “Euskadi Gaztea”-n adibidez, irrati-formularena da erabiltzen den egituratze-eredua.

Irrati-eredua		Gaiak/Generoak	Formatuak
Orotarikoa		<b>Ask:</b> Informazioa, Musika, Kirolak, Denbora-pasak...	<b>Ask:</b> Magazinak dena inbaditzeko joera
Berezitua	Tematizatua	<b>Bat:</b> Musika, Informazioa, Ekonomia, Erljijioa...	<b>Ask:</b> Generoka Magazina...
	Formatu itxikoa	<b>Bat:</b> Kirola, Musika, Trafikoa...	<b>Bakarra:</b> Erloju-diagrama

Beraz, esandakoaren arabera, formatuaren eta generoaren arteko lehia ez da amaitu eta bere horretan mantenduko da, irratigintza bera bizirik eta aldaketa iraunkorrean murgilduta dagoela erakutsiz.

Esandakoagatik, formatuaren eta edukiaren arteko buruz burukoan, zaila suertatzen da jakiten programa baten (edo programazio-taula osoaren) izaeran nor nagusituko den, nor markatu duen gehien bere arrastoa. Eta hori baino zailagoa da jakiten urte batzuetako zein eremu desberdinetako (Estatu espainiarra eta frantziarra, esaterako) irratigintzaren bilakaeran zerk erabakiko duen norabidea.

Irrati-eskaintzaren azterketaren beharra eta, aldi berean, zailatasunak azpimarratu zituzten Martí-k (1990), EBUk (2001) eta Gutierrez-ek eta Huertas-ek (2003), ziotenean beharrezkoa zela orohartzailea, fidagarria, maneaieraza eta nazioartean konparagarria den sailkapena. Aldi berean, irradi-eskaintzaren azterketa ahalbidetuko zuen sailkapena proposatzerakoan edukiaren garrantzia azpimarratuta ere, Escort 2.4 izeneko sailkapenaren “multi dimentsionaltasunaren” beharra agerian utzi nahi zuten. European Broadcasting Union-ek prestaturiko sailkapenaren arabera, edukiaz gain, irradi-telebisten eskaintza ikertzerakoan, aldi berean, beste osagarri batzuk hartu behar ziren kontuan, hala nola: programaren helburua zein zen (informatzea, entretenitzea, hezte...), erabilitako formatua (hitza, musika, antzespena...), zein jende duen xede-talde gisa, produkzioaren jatorria, hizkuntza eta abar.

Alderdi askotariko azterketa- eta sailkapen-sistemak, ordea, agerian uzten du, ezer baino lehen, irradi-eskaintzaren azterketan, batzuetan, edukiak duen nagusitasuna eta, besteetan, formatua bilakatzen dela beste guztiaren baldintzatzaile. Horren jakitun, guk sailkapenean, kasuan kasuko eta beharren arabera, formatuaren ala generoaren parametroak erabiliko ditugu. Ikuspegi bikoitz eta gurutzatu horrekin, aldakorra, mugitua eta bizia den irratigintzaren errealitateaz hobeto ausnartzeko modua izango dugu.

Irrati generoak eta azpigeneroak<sup>2</sup>

<b>INFORMAZIOA</b> – Aldikakotasunaren arabera – Informazioaren antolaketaren arabera – Edukien arabera – Entzuleriaren arabera – Emisio-eremuaren arabera	<b>HEZITZAILEAK; ZIENTZIA</b>
	<b>DENBORA-PASAKOAK</b> – Lehiaketak – Agendak – Bidaiei buruzkoak
<b>GAURKOTASUNEKOAK/ MAGAZINAK</b> – Magazin orokorrak – Magazin espezializatuak – Informazio-magazinak – Asteburuko magazinak	<b>MUSIKA</b> – Musika-albistegiak – <i>Hit-paradeak</i> – Irratsaio espezializatuak – Edizio bereziak
<b>KULTURA</b> – Kultur informazioa – Kultur agendak eta ikuskuzun-karteldegiak – Kultur arlo zehatzekoa	<b>FIKZIOA</b> – Irrati-antzerkia – Irrati-nobela – Seriala – Dokudrama – <i>Sketch</i> -ak
<b>KIROLAK</b> – Zuzeneko emanaldiak – Kirol-albisteak – Karruselak – Kirol-magazinak	<b>ERLIJIOZKOAK</b> – Mezak – Erljio-saioak
	<b>PUBLIZITATEA</b>
<b>UMOREA</b>	

2. Arantza Gutierrez-ek Ekoizpena eta Errealizazio Irratian izeneko liburuan (UEU, 2001) erabiltzen duen sailkapena Mariano Cebrian-ek (1994) eginikoaren ildotik doa: Información Radiofónica. Mediación Técnica, Tratamiento y Programación, Síntesis, Madril.



## Irrati-generoetarako eta azpigeneroetarako sailkapen desberdinak.

Ortiz eta Volpini	J.M. Martí	EBU-UER (Escort 2.4) <sup>3</sup>	Carmen Peñafiel <sup>4</sup>
<b>– Informativo:</b> – Boletín informativo – Diario hablado – Informativo especial	<b>– Informació</b> – Bulletí – Debat – Especializat – Línia telefònica – Magazin – Radiofórmula – Servei principal – Tertúlia	<b>– Information</b> – General non-fiction topics – Philosophies of life – Social/Political – Sports – Human interest – Leisure – Arts & Media – Humanities – Sciences	<b>– Informativos</b> – Boletines de noticias – Diarios hablados – Programas especializados – Organización de la polémica – Documentales – Reportajes – Entrevista
<b>– Musical</b> – Lista de éxitos – Música especializada – Programa-revista musical – Programa de autor	<b>– Música</b> – Divers – Espezializat – Informatiu – Magazine – Radiofórmula	<b>– Music</b> – Serious music – Jazz – Middle-of-the-road – Pop/Rock/Pop-rock – Traditional	<b>– Musicales</b> – Diarios musicales – Ediciones especiales – Retransmisiones – Programas especializados – <i>Hit Parades</i> o Listas de Éxitos
<b>– Ficción y dramático</b>	<b>– Ficcíó</b> – Adaptació – Teatre	<b>– Drama</b> – Popular drama – Serious drama – Docudrama – Poems/Stories	<b>– Dramáticos</b> – Seriales – Radioteatro – Dramatizaciones y Adaptaciones literarias
<b>– Magazin</b>			
<b>– Documental</b>			
<b>– Publicidad</b>			
	<b>– Religió</b> – Divers – Informatiu – Magazine – Missa		<b>– Específicos</b> – Educativos/ Divulgativos – Políticos – Religiosos – Beneficiencia – Taurinos – En colaboración con el medo TV – De continuidad

3. EBU-UERek buruturiko Escort 2.4 programa (eta programazio)-sailkapenean, besteak beste, elementu hauek kontuan hartzen dira: Helburua, Formatua, Edukia, Xede-taldea, Jatorria, Hizkuntza eta abar. Gu, hemen, edukiari buruzko azpiatalean zentratu gara.

4. Carmen Peñafiel-en sailkapenean lau multzo bereizten dira: Informatiboak (Albistegiak, Bereziak, Dokumentalak...), Entrenimendua (Musikalak, Kirolak eta Dramatikoak), Bereziak (Hezitzaileak, Politikoak, Erlijiozkoak, Zezenak, Kontinuitatea...) eta Mistoak (magazinak, dokudramak, formatu itxikoak). Guk lau multzo horiek banatu eta birkodetu egin ditugu, taulan ageri den bezala.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Esport</b></li> <li>– Carrusel / Simultani</li> <li>– Informatiu</li> <li>– Magazine</li> <li>– Retransmissió</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Deportivos</b></li> <li>– Actualidad deportiva</li> <li>– Retransmisiones en directo</li> <li>– Retransmisiones en diferido</li> <li>– Contenedor</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Entretenment</b></li> <li>– Ciències ocultes</li> <li>– Humor</li> <li>– Jocs i Concursos</li> <li>– Magazine</li> <li>– Tertúlia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Entertainment</b></li> <li>– Game show</li> <li>– Quiz</li> <li>– Humour</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Entretanimiento</b></li> <li>– Juegos y concursos</li> <li>– Humor</li> <li>– Infantiles</li> <li>– Juveniles</li> <li>– Femenino</li> <li>– Eróticos</li> <li>– De participación</li> <li>– De invitados</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Mixtos</b></li> <li>– Magazines</li> <li>– Docudramas</li> <li>– Radio-Fórmulas</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Mixtos</b></li> <li>– Magazines</li> <li>– Docudramas</li> <li>– Radio-Fórmulas</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Cultura</b></li> <li>– Divulgatiu</li> <li>– Informatiu</li> <li>– Magazine</li> <li>– Tertúlia</li> </ul>		
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Participació</b></li> <li>– Cartes</li> <li>– Línia telefònica</li> </ul>		
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Divulgatiu:</b></li> <li>– Magazine</li> </ul>		
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Divers</b></li> <li>– Cuina</li> <li>– Ecologia</li> <li>– Noves tecnologies</li> <li>– Ràdio i televisió</li> <li>– Seguretat</li> <li>– Tercera edat</li> <li>– Salut</li> </ul>		

## 2. GENEROEN DEFINIZIOA

Aurreko azpiatalean aipatu dugunez, edukia (genero hitzaren sinonimotzat hartu izan dena) eta programaren egituraketa (formatua ala taxuera) erabat erlazionatuta daude, lehiakortasuna, menpetasuna eta “moldeak hautsi beharra” gisako harremanak baldin baditu ere, sarritan.

Irrati-eskaintzaren azterketari ekiterakoan, beraz, edukiak duen garrantziari formatua gehitu behar zaio. Kontuan hartu beharreko bi elementu horiek nahastuko dira guk erabiliko dugun sailkapenean (Peñafiel, 1992; EBU, 2001; Gutierrez eta Huertas, 2003; Gutierrez, 2001 eta Cebrián, 1994).

Gainera, interesgarria da ohartzea ezen irradi-generoak aztergai hartzen ditugun honetan, irratsaio solte batez ala irradi-emisora baten emisio-taula osoaz arituko garela, hurrenez hurren. Izan ere, orotariko irratigintzan programazio-taularen genero bat besterik ez dena, irradi baten edukia zeharo markatuko duen elementua da tematikoan.

Ondoren agertuko diren generoak aztertzeko, orotariko irratigintzako adibi-deak erabiliko ditugu gehienetan, beti ere irratigintza tematikoko adibide batzuk aipatuko ditugun arren.

### 2.1. Informazioa

Irratigintzaren historian gaur egun ere garrantzi handikoa izan den genero honek alderdi asko ditu. Hemen, osagarri formala eta edukia konbinatzearen ondorioz sortzen diren motak aztertuko ditugu labur-labur (Zabaleta eta Zalakain, 2004). Oparotasun hori ilustratzeko erabiliko ditugun ikuspegiak hauexek dira:

- Aldizkotasuna
- Informazioaren antolaketa
- Edukia
- Xede-taldea
- Emisio-eremua

**Aldizkakotasunari** dagokionez, informazioa gai modura duen irratsaioa, oso desberdina izan daiteke. Hauek dira maiztasun ohikoenak: egunekoa; ordu/ordu-tarte desberdinekoa; egunerokoa; lan/jaiegunerokoa; astekaria; hamaboskaria; hilabetekaria; urteko laburpena eskaintzen duena eta gertakari berezi baten inguruan egiten direnak.

Eguneroko programazio-taula artikulatzeko orduan daukaten paperagatik, bi aipatuko ditugu: albistegi nagusiak (goizez, eguerdiz eta gauez) eta orduoroko albistegi laburrak (bost minutu ingurukoak).

Informazioa **antolatzeko** erabiltzen den moduaren arabera, lau dira motarik erabilienak: Flasha, Ordukakoa, Aurrerapena ala Laburpena eta Albistegi nagusia

Flasha da albiste-saio laburrena eta eskematikoena —izan ere, notizia bakarra eskaintzen du— gehienetan, gertakari garrantzitsu bat bizitzen denean eta gaurkotasanak aginduta ezin denean orduoroko albistegiaren zain egon. Flasharen batekotasanak eta ezinbestekotasunak erabilera oso neurtua izan behar duela agerian lagatzen du. Ohiko programazio-taula hausten du eta ahal den bezain laister aireratzen da.

- Ordukako boletinak, bestalde, egunean 24 aldiz eta 3 eta 5 minutu bitarteko iraupena izaten du albitez betetzeko. Irratsaio gisa tamaina txikikoa izanik ere, nortasun propioa eta definitua du. Informazio-ordulariarena egiten du, eta, albistegi orokorretan modu zabalagoan eta sakonagoan landuko dituzten gaiak aipatzeko erabiltzen da.
- Aurrerapena/Laburpena: ordukako informazio-saioekin nahasten dira, albistegi nagusiaren iragarpena egiten duelako. Ez da gehiegi erabiltzen.
- Albistegi nagusiak: informazioari dagokionez, irrati bakoitzak bere entzule-riari eskaintzen dizkion mugarriak dira. Emisio-tarte oso definituetan kokatzen dira eta, 30 eta 60 minutu bitarteko iraupenaz, albiste garrantzitsuenak aireratzen ditu. Esatari eta egitura ezagun eta iraunkorra izaten du eta irratia iren ildo editoriala nondik norakoa den islatzen du.

Albistegi nagusiek, ordukakoek bezala, eguna “atal” garrantzitsuenetan zatitzen dute, hala nola: goiza, eguerdia, iluntzea eta gauerdia.

<b>Izenburua</b>	<b>Irratia</b>	<b>Eguna(k)</b>	<b>Ordua</b>	<b>Iraupena</b>
“Hora 14”	SER	egunero	14:00	60’
“Noticias en Onda Cero”	Onda Cero	egunero	14:30	30’
“Crónica de Euskadi”	Radio Euskadi	egunero	22:00	30’
“Diario de la tarde”	RNE	egunero	20:00	30’
“Goizak gaur”	Euskadi Irratia	egunero	13:00	55’
“Inter treize”	France Inter	egunero	13:00	60’
“12-14”	Radio France	egunero	12:00	120’

Informazioa definigarri gisa duen genero honetan, badira beste ikuspegi batzuk kontuan hartzeko modukoak, alegia **tematizazioa** (gai bakarra ala asko jorratzen direnean), **edukia** (orotarikoak edota gai batean berezituak), **xede-taldea** (populazio osoa edo segmentu sozial bereziak) eta, azkenik, informazio-saioaren **emisio-eremua** (auzoa, herria, herrialdea...).

Irratigintza berezituaren sorreran berebiziko garrantzia izan du informazioa ardatz modura hartzen duenak. Irratigintza tematizatua eta formatu itxikoa, biak, espezializazioaren oinordekoak dira. Gaztelaniaz aritzen den RNE 5, Radio

Andalucía Información, frantsesazko Radio Info eta 2003an Katalunian sortu zen Ràdio 3/24 izenekoak bizirik dagoen eremuaren adibiderik agerikoenak dira.

## 2.2. *Magazinak/Gaurkotasunekoak*

Irratigintzaren joan-etorrian, programa solteei zein horien atal desberdinei batasuna eta marka-irudi propioa ondoen ematen jakin duen generoa da Magazina (Echevarría, 2002 eta 2004).

Gaurkotasuna zainduz, informazioa, iritzia eta ikuskizuna modu erakargarrian eskaintzea da genero honen nortasunaren elementurik definigarriena.

Eguna joan eta eguna etorri, tinko mantentzen den egitura bera erabiliz (aurkezle-gidaria, atalak, kolaboratzaileak, sintoniak...), identifikaeraza da, eta esatari nagusiaren bidez desberdinak diren osagarriak bateratu egiten ditu berezko izaera eskuratuz. Emisio-maiztasun handikoa —egunerokoa askotan, eta lanegunerokoa guztietan— eta urte luzez mantentzen denez, programazio-taulen zutoinetako bat bilakatzen da.

Azken urteotan, Magazinak iraupenean gora egin izanak eta garrantzia irabazi duen aurkezlearen bidez, kanalaren irudi-eraikitzaile ahaltsuak dira eta fideltasunerako tresna ezin hobekak. Ordu luzez aritzen denez —goizeko magazina, esaterako—, informazioak garrantzi gehiago dauka goizeko lehen orduan, eta, gero, eguerdirako bidean daudela, entretenimendua nagusitzen da. Aurrerago, amaiera aldera, berriro ere, informazioaren inguruan gorpuzten da.

Lau behintzat badira Magazinen barruan defini daitezkeen motak:

- Magazin orokorra: Albistegi bat izan gabe, egunerokotasunetik edaten du, eta bere argumentuak eta gaiak jorratzen ditu luze eta zabal. Tratamenduari dagokionez, informazio hutsa baino arego, gertakarien azterketa, iritzia, inkestak, erreportajeak, entzuleen deiak eta abar konbinatzen ditu. Askotariko gaiak aipatzen dira magazinetan, baina bereziki politika, gizarte eta kulturarekin zerikusia dutenak.
- Magazin berezituak: gai bakarra modu monografikoan jorratzea da magazin-mota honen elementurik markatuena. Nagusitzen diren gaien artean daude kirola eta kultura, nahiz eta tratamenduak oso desberdinak izan.

Kirol-magazinei dagokienez, kirol-informazioari buruzko saioak baino luzeagoak izaten dira, eta, neurri batean, iritzia leku gehiago irabazten du. Xede-taldea nahiko definitua dute, eta handia da jendearen artean lortzen duten arrakasta.

Kultura-magazinek, aldiz, albistegietan aipatzen diren kultura-gaiak zabalago eta modu sueltoagoan jorratzen dituzte.

- Informazio-magazina: tematikoki oso markatua denez, albistegietatik be-reizgarri duen elementurik aipagarriena tratamendua da. Albistegietan sumatzen den estutasuna eta denbora-falta astindu eta gaiak zabalago eta tratamendu aldetik erakargarriago egiten dira. Gainontzeko magazinetan bezala, informazioa ardatz modura dutenetan, iritzia eta azterketa politikoaz gain, prentsako albisteen azterketa, korrespontsalekin zuzeneko loturak, eztabaida-mahaia eta abar egiten dira.

Asteburuetakoa magazinak: larunbat eta igandeetan aireratzeak erabilgarri duen lehengai informatiboa eta entzulearen jarrera eta izaera kontuan hartu beharra dakar neurri handi batean. Gaurkotasanari eutsiz, kulturak, gai sozialek garrantzi gehiago izaten dute eta elkarrizketak eta albisteei buruzko iruzkinak luzeago lantzen dira.

<b>Izenburua</b>	<b>Irratia</b>	<b>Eguna(k)</b>	<b>Ordua</b>	<b>Iraupena</b>
“Hoy por hoy”	SER	lanegunero	06:00	390’
“Protagonistas”	Onda Cero	lanegunero	06:00	390’
“Boulevard abierto”	Radio Euskadi	lanegunero	10:07	180’
“El altavoz”	Radio Euskadi	lanegunero	18:07	150’
“Faktoria”	Euskadi Irratia	lanegunero	10:07	180’
“Inter matin”?	France Inter	lanegunero	05:00	240’
“Pascale Lafitte-Certa”	Europe 1	lanegunero	10:30	90’
“Muxutruk”	Herri Irratia	lanegunero	10:00	180’

### 2.3. *Kultura*

Gaur egungo irratigintzan Kulturak, genero definitu eta autonomo gisa, hutsaren hurrengoko proiektzioa du programazio-tauletan. Hala ere, badira bakar batzuk azpigenero desberdinak egon badaudela erakusteko:

- Kultur informazioari buruzkoak
- Kultur agendak eta ikuskuzun-karteldegia
- Kulturaren arlo bati buruzkoak

<b>Izenburua</b>	<b>Irratia</b>	<b>Eguna(k)</b>	<b>Ordua</b>	<b>Iraupena</b>
“Euskal Graffiti”	Radio Euskadi	lanegunero	15:00	120’
“El ojo crítico”	RNE	lanegunero	22:00	60’
“Lo que yo te diga”	SER	larunbata	17:00	60’
“Le masque et la plume”	France Inter	igandea	20:00	60’
“2000 ans d’histoire”	France Inter	lanegunero	13:30	30’

Estatu espainiarrean, Kulturaren espezializatu diren irratien artean aipatzeko modukoak dira: Catalunya Cultura, Radio ECCA eta Ràdio Salut.

## 2.4. Kirolak

**Kirol-albistegiak**, eguerdiko zein gaueko informazio orokorrekoen ostean kokatzen dituzten programak dira. Edukiari dagokionez, kirola dute gai bakarra, baina tratamenduari dagokionez, asko dira albisteak, kronikak eta elkarrizketak. 30-60 minutu bitarteko iraupena dutela, saio oso definituak eta aurkezle ezagunek gidatutakoak izaten dira.

Izenburua	Irratia	Eguna(k)	Ordua	Iraupena
“Radiogaceta de los deportes”	RNE	lanegunero	06:00	390’
“Kirolaldia”	Radio Euskadi	astelehen-larunbata	14:30 eta 20:30	30’
“SER deportivos”	SER	lanegunero	20:30	30’
“DKP Sport”	RMC	lanegunero	20:30	150’
“Hiru Erregeen mahaia”	Euskadi Irratia	asteburua	16:00	240’

Zuzeneko emanaldiak eta Karruselak dira kirol-ekitaldiak ematen diren egunean eta orduan bertan egiten diren saioak. Zuzeneko ekitaldia partidak irauten duen beste eta gehiago luzatzen da, askotan jokalaria, entrenatzaileak, arbitroak edota komentario-egileak sartzan dituztelako. Kirol emanaldien erretransmisioetan nagusi da futbola, baina badira bestelako kirolentzako tarteak ere: pilota, saskibaloia, estropadak, txirindularitza.

Kirol-karuselen bidez, aldi berean egiten ari diren partidak kontatzen dira. Momentuan momentuko emaitzak eta gorabeherak antenaratzen dira, erritmo azkarra eta baliabide tekniko eta informatibo handiak erabiliz.

Izenburua	Irratia	Eguna(k)	Ordua	Iraupena
“Carrusel deportivo”	SER	larunbata	18:00	360’
		igandea	16:00	450’
“Kirolaldia-Futbol”	Radio Euskadi	igandea	16:00	240’
“Tablero deportivo”	RNE	larunbata	19:00	300’
		igandea	16:00	360’
“Europe Sport”	Europe 1	egunero	20:00	150’
“Multiplex/Sport”	Europe 1	igandea	19:00	300’
“Gol a gol”	Herri Irratia	igandea	16:30	180’

Kirol-magazinak, lehen ere ikusi dugun bezala, magazinaren formatua aplikatzen duten saioak dira, kirola gai zentralizat hartuta. Kirol ugariren aipamena egiten dute, beraz, eta kontainer deituriko irratigintzaren moldea aplikatzen dute. Beraz, albisteak, iritziak, kronikak, komentarioak, umorea, debateak, musika eta abar erabiltzen dira horrelako kirol-magazinetan. Eduki orokorragoa duten

magazinetan bezala, iraupen luzeak izaten dira, eta gehienbat gaueko ordu-tarte zabala betetzen dute. Gai aldetik monografikoa den magazin honetan ere, oso garrantzitsua izaten da aurkezlearen lana.

<b>Izenburua</b>	<b>Irratia</b>	<b>Eguna(k)</b>	<b>Ordua</b>	<b>Iraupena</b>
"El larguero"	SER	lanegunero	00:00	90'
		larunbata eta igandea	23:30	90'
"El tirachinas"	COPE	egunero	00:00	120'
"La Ola"	RNE	egunero	00:00	120'
"La brujula del deporte"	Onda Cero	lanegunero	23:45	75'

Estatu espainiarrean Radio Marca izeneko da genero honetan espezializatu den irratia.

### **2.5. Hezitzaileak eta Zientziari buruzkoak**

Hezkuntza-sistemaren osagarri gisa sortu direnak edo, soil-soilean, entzule-riaren jakintza-maila zabaltzeko asmoarekin eginiko saioak dira. Albistegien itxura hartzen dute askok, baina badira hitzaldiaren, elkarriketaren edota dokumentalaren formatua erabiltzen dutenak.

Azken denboraldian, zientzia eta teknologia eta interneten ingurukoak dira gehien ugaritu direnak. Hala ere, mantentzen dira osasuna, loragintza, dekorazioa, mekanika edota informatika lantzen duten irratsaioak.

### **2.6. Denbora-pasakoak**

Hiru programa-mota kokatu izan dira genero honen baitan: Lehiaketak, Agendak eta Bidaiei buruzkoak.

Garai batean irrati-estudioetara joaten baziren ere, gaur egun Lehiaketetan parte hartzen dutenak telefonoz aritzen dira galderak erantzuteko ala frogak gainditzeko ahaleginetan. Zuzenean egiten diren irratsaioak dira eta aurkezleak jarritako frogak (jakituria ala abilezia) denbora laburrean gainditu beharrak presio handia gehitzen die, erakargarritasunean irabaziz. Mota askotariko lehiaketak izaten dira, baina ohikoen artean daude: soinuak identifikatzea, kalkulu mentalak burutzea, ahotsak ezagutzea, memoria ona agerian uztea, bertsoan aritzea ala orotariko kultura ona izatea.

Agendak deituriko generoan, kultura-, entretenimendu- eta gizarte-munduko gertakizunen berri ematen da. Irratiaren emisio- edo eragin-eremuko ekitaldiak aipatzen dira eta beti ere jendea jakinaren gainean jartzeko eta baita ere bertaratu dadin animatzeko erabiltzen dira.



Bidaiei buruzko saioetan tokiak, pertsonak, paisaiak edota bidaiatzeko sistematik aipatzeaz gain, joan-etorri horiek egin dituztenen bizipenak aireratzen dira. Bidaien berri ematerakoan, abenturazale-adituen kontakizunak ez ezik, programaren entzuleak direnen esperientziak mahaigaineratzen dira. Saio horietan, bidaien deskribapenari bertako musikak, elkarrizketak eta soinuak gehitzen zaizkio. Erreportajeak erabiltzen diren arren, gehienetan estudiantik bertatik edo telefonotik eginiko elkarrizketetan oinarritzen dira.

Izenburua	Irratia	Eguna(k)	Ordua	Iraupena
“No es un día cualquiera”	RNE	larunbata eta ignadea	09:00	240’
“Bidalidi”	Euskadi Irratia	igandea	15:00	60’
“La casa de la palabra”	Radio Euskadi	egunero	21:00	60’
“Le jeux des mille euros”	France Inter	lanegunero	12:45	15’

## 2.7. Musika

Irratigintzarako lehengaien artean hitza eta musika dira nagusi, zalantzarik gabe. Musika-saioetan, musikak berak berebiziko garrantzia duen arren ere, musikari buruzko berba asko entzuten da.

Bost izaten dira musikaz gozatzeko eta berriketarako aitzakia ematen duten programa-motak.

**Musika-albistegietan**, esaterako, gaurkotasuna kontuan hartuta, kaleratutako diskak, eskainiko diren kontzertuak, kritikak eta kantari edo musikoen gorabeherak aipatzen dira, informazio-saio baten antzerako formatua erabiliz. Gero eta gehiago dira izen handiko eta iritzi ezaguneko norbaiten gidaritzapean egiten diren musika-albistegiak.

**Hit-parade** delako programetan, disko entzutetsuenen errepassoa egiten da. Arrakasta-zerrenda hauetarako formatua, beste azpiatal batzuetan ikusi dugun modura (269-272 orr.), programa soil batentzako edo programazio osoarentzako erabilgarria da. *Hot Clock* formatua “Los 40 Principales” delako irradian erabiltzen da.

**Irratsaio espezializatuetan**, arrakasta-zerrendetatik kanpo dauden musika-motak aipatzen dira. Programaren egitura, esatariaren jarrera eta entzungai jartzen diren musiken arteko lotura mantentzen ahalegina egiten dute.

**Edizio bereziak**, aldiz, musika-ekitalde aipagarriak (operaldia, jazzaldiak) edo gertakari bereziak suertatzen direnetarako programatzen dira. Formatu aldetik oso desberdinak izaten dira, batzuetan kontzertu-erretransmisio hutsak dira, eta bestetan kronika-tankera hartzen dute.

Musika-eskaintzak, bestalde, lagunei, familikoei, lankideei edo dena-delakoei eskainitako kantak antenartzeko erabiltzen dira. Entzungarri den musikari dago-kionez irekiak diren arren, badaude irratsaio berezituak, non kanta-eskaintza estilo batekoa bakarrik izaten den.

Izenburua	Irratia	Eguna(k)	Ordua	Iraupena
“Jazz siglo XXI”	Radio Vitoria	igandea	01:00	60’
“La jungla sonora”	Radio Euskadi	lanegunero	17:00	60’
“Clásicos populares”	RNE	lanegunero	15:00	60’
“Pintan coplas”	RNE	igandea	03:00	60’
“Carrefour de Lodéon”	France Inter	lanegunero	16:00	60’
“Night and day”	France Inter	lanegunero	22:00	120’
“Boulibaï Vibrations”	France Inter	igandea	23:00	60’
“Azken furgoia”	Herri Irratia	lanegunero	24:00	90’

Genero honek irratigintza berezitan eman dituen pausoak oso oparoak izan dira eta asko dira musikara huts-hutsean dedikatzen diren irrati-emisorak. Kontuan hartu behar da baita ere, euskarri berrietan ere (satelitean, kablean eta interneten), musika dela akuilu-lana ondoen egiten duen generoa. Segmentazio sozio-demografikoan eta zaletasun musikalean oinarrituta daude, zalantzarik gabe, irratigintza tematikaren giltzak.

Tematikoki hain espezializatuak diren irratien artean daude, nola ez, Radio Clásica, Catalunya Música, RNE 3, Cadena 40 Principales, Euskadi Gaztea, France Musiques,

## 2.8. Fikzioa

Erabat asmatuak edo benetako gertaeretan oinarrituak izanda ere itxuraz aldatuta eta bere baitan sormen-lan handia duten programa hauen garrantzia gero eta txikiagoa da gaur egungo irratigintzan. Joan zen mendearen 30-50eko hamarkadetan garrantzi itzela izan zuten arren, gaur egun ez da halakorik gertatzen, egiteko zailak eta garestiak izaten direlako.

Hiru dira Fikziokoen edo Dramatikoen artean sailkatzen dituzten motak.

Lehen multzoan **Irrati-antzerkia**, **Irrati-nobela** eta **Seriala** kokatzen dira. Berez irratirako idatzia izan den gidoian oinarrituak edo libururen batetik egokituak izan, irratsaio horiek oso ospetsuak izan ziren, paleo-irratigintza deiturikoan. Estilo desberdinekoak diren saio dramatiko hauetan emisio-bakarrekoak baino gehiago serialitatea lantzen da, eta entzuleria fidelizatzeko asmorarekin eginiko serieak dira.

ekoizpen aldetik astiro egin beharrekoak izaten dira antzesle, efektu eta musika aproposak bilatzeko lanak neketsuak izaten direlako.

**Dokudramak** dira, dramatikoaren artean, fikzioa eta errealitatea lotzen ahalegintzen direnak. Benetako gertaeretan oinarritu eta fikzionatu egiten duten saioetan protagonistak, lekukoak edota beren bizipenak dira irratiz eskaintzen direnak. Erreportajea, elkarrizketa eta dramatizazioa nahasturik agertzen duten programa hauetan anbertazio musikalak eta muntaiak garrantzi handia dute.

**Sketch**-etan, antzeslan edota irratirako propio idatzitako zatitxo bat eskaintzen da sarritan komikoa edo satirikoa. Umorea, imitazioak, asmatutako albisteak edota errealitatearekin zerikusirik ez duten gertaeak kontatzean zentratzen dira.

## 2.9. Erlijiozkoak

**Mezak** edota ohikoak diren ekitaldien erretransmisioa eta erlijioari buruzko saioak izaten dira genero honetan arruntenak. Lehenen artean, erlijio katolikoaren asteroko meza eta errosarioa daude. Baina baita ere, ekitalde bereziak eskaintzen dira: Aste Santukoak, Aita Santuaren urte amaierako bedeinkapena, etab.

**Erljio-saioetan**, berriz, sinismen bakoitzaren inguruko edukiak eskaintzen dira: testu sakratuen irakurketak, iritziak, komentarioak, elkarrizketak, agenda, lekukotzak, otoitzak, musika eta abar. Erljio-saio batzuek maiztasun ezaguna eta tinkoa izaten dute, beste batzuek, aldiz, gertakari berezien inguruan antolatzen dira: Urte Xakobeoa edo Aita Santuaren bidairen bat aitzakia modura hartuta.

Izenburua	Irratia	Eguna(k)	Ordua	Iraupena
“Santa Misa”	Radio Vitoria	igandea	08:20	40’
“El espejo de la familia”	COPE	igandea	14:30	30’
“La linterna de la iglesia”	COPE	ostirala	22:30	60’
“Errosario Santua”	Bilboko Herri Irratia	lanegunero	19:30	30’
“Anjelusa-otoitza...”	Radio Lapurdi	lanegunero	06:30; 07:30 eta 08:30	30’

Erljiozkoak, genero gisa, eman dute irradi berezituak sortzeko besteko marnia. Azken denboraldian, Radio María, Radio Santa María de Toledo edo Ràdio Estel ugaritu dira, adibidez, Estatu espainiarrean. Iparraldean, aipatzekoa da Radio Lapurdiren kasua, erlijio-gaietan tematizatua den irratia baita.

## 2.10. Publizitatea

Iragarleek ordaindutako edukiak dira, produktu zein zerbitzu baten inguruko publizitatea egiteko asmoarekin sortuak. Asko dira publizitateak irradian hartzen dituen formak, baina arruntenak hauexek: kuñak, flashak, komunikatuak, *jingleak*,

aipamenak, mikrosaiokak, preskripzioak, publierreportajeak, babesletzak eta gida komertzialak (Betés, 2004: 224-232).


### 3. *GENERO DESBERDINEN GARRANTZIA GAUR EGUNGO IRRATIGINTZAN*

Gutxi batzuk besterik ez dira irrati-eskaintza aztertzen duten ikerketak. Gainera, ahulezia horrez gain, lehen aipatu dugun generoen definizioaren homologazio-falta agerian dago. Honen guztiaren ondorioz, zaila suertatzen da entzungai dugun irratiaren edukia nolakoa den jakitea, modu zientifikoan behintzat. Eskuragarri ditugun ikerketa-lanak oso noizbehinkakoak dira, azterketa-eremu oso desberdinekoak, metodologia homogenorik gabekoak, “ikerketa-egileen eta bezeroen” arteko erlazio itxian sartutakoak eta emaitza arras desberdinekoak.

Azpiatal honetan, gure inguruko irrati-gintzaren panorama ahalik eta modurik zabalenean emateko asmoz, Estatu espainiarreko datuak aztertuko ditugu lehenengo, gero Estatu frantziarrekoak, marko orokor gisa balio dezaketelako. Azkenerako utziko ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko datuen azalpena.


Ezer baino lehen, Estatu espainiarreko irrati-gintzaren panorama osatzen duten emisoren errepasoa eginez, hona hemen, eskaintzen duten programazioari dagokionez dagoen aukera. Kontuan hartu behar da, ondoko grafikoa, Estatu espainiar osorako ari diren kateen emisorek aineratzen duten programazioaz ari garela.

**Estatu espainiarreko kateen emisorek programazioaren arabera. 2003. CIMEC-MB.**



Azpiatal honen hasieran aipatu dugun datu-faltari buelta eman nahian, 2002-2003 denboraldian Gutiérrez-ek eta Huertas-ek (2003) orotariko irratigintzaren azterketa egin zuten, Estatu espainiar osorakoak kontuan hartuz. Hauek dira irratieskaintzaren datu oinarritzkoenak, beraiek erabili zuten genero-tipologia aplikatuz.


**Estatu espainiarreko irratien uhin ertaineko (OM) eskaintza; generoka; astelehenetik igandera (2002-2003) (Gutiérrez eta Huertas, 2003).**



Grafikoa ikus daitekeenez, antzerakoa da oso irradi-kateen eskaintza. Genero-erdi dagokienaz, hiru genero daude, hau da, Informazioa, Magazina formatu modura duena eta Kirolak dira emisio-ordu gehien eskuratzen dutenak. Gainontzeko generoen garrantzia oso baxua da. Gainera, genero horiekin erabiltzen den programazio-politika aurrez aurrekoa da. Lehia biziaren adierazlea, alegia, konpetenziak eskaintzen dituen formatu, ordutegi, aurkezpen-mota eta xede-talde berberak lortu nahi dituenarena. Beraz, gaur egun, homogenotasuna irratigintza publikora eta pribatura zabalduta da, eta zaila da bi eremu horien arteko bereiztasunak aurkitzea.

Estatu frantziarrean, aldiz, irratien arteko desberdintasunak handiak dira SJTIK (1999), argitaraturiko datuen arabera. Batez besteko datuak abiapuntu modura hartuta, Informazioari dagokionez, Europe 1 da gailentzen dena. Aldiz, entretenimenduari kasu eginez, irratigintza komertzialak eskuratzen ditu, orokorrean, puntu gehien. Musikan Sud Radio da azpimarratzeko moduko eskaintza daukana. Azkenik, Magazina, Kultura eta Aisialdia bere edukietan nagusitzen duten kanalaren artean azpimarratzekoa da France Inter. Ikus ondoko grafikoa.

### Estatu frantziarreko eskaintza; generoka; (1997-1998) (SJTI, 1999).



Azkenik, azpiatal honen hasieran esan dugun modura, Euskal Herriko irrati-gintzaren panorama hobeto ezagutzeko asmoz, EAEn entzun daitezkeen irrati-entzuten eskaintza nolakoa den aztertuko dugu<sup>5</sup>. Euskal Autonomia Erkidegora heltzen diren Estatu espainiar osorakoak eta bertakoak diren irratiak aztertuko ditugu Peñafiel-en, Casado-ren eta Fernández-en lana erabiliz (2003).

Esaterako, 2002ko maiatzean eginiko landa-lanaren emaitzen arabera, Estatu osorako zabaltzen diren orotariko irrati-entzuten eskaintzari Informazioa, Magazina eta Kirolak gehituz gero, emanaldiaren %80tik gorako lekua betetzen dute. Informazioak eguneroko programazioa egituratzen laguntzen du albistegi nagusiekin (goiza, eguerdia eta gaua) eta orduko albistegiekin. Goizeko, bazkalosteko eta gaurdiko magazinek entzuleria zabal bezain oparoaren gurariak asetzen dituzte. Aurkezle ospetsuek gidaturiko magazin horietan, ordu luzez eduki oso desberdinak eskaintzen dira, entzuleriaren aldetik erantzun ona jasoz. Kirolak, eguneroko kirol-informazioak eta irrati gehienetan dauden kirol-magazinak direla medio, garrantzi handia du gaur egungo eskaintzan. Baina, horrez gain, asteburua kirol-eremu berezia bilakatzen dela azpimarratu behar da.

5. Gutiérrez-en eta Huertas-en azterlanean lorturiko emaitzekin dagoen aldea handia da. Seguruenik, generoen definizioa eta aztergai jarri den denbora oso desberdinak direlako. Bata ala bestea hobetsi gabe, Peñafiel-en, Casado-ren eta Fernández-en lana gehiago erabiliko dugu, EAera heltzen diren irrati-entzuten gain, bertan lan egiten dutenetan gehiago sakontzen duelako.

**Estatu osorako irratiaren eskaintza; generoka; astelehenetik igandera (2002)**

	SER	RNE	COPE	Onda Cero
<b>Informazioa</b>	20	18	24	18
<b>Magazina</b>	46	57	43	42
<b>Kultura</b>	4	5	1	1
<b>Kirolak</b>	17	10	17	23
<b>Musika</b>	-	4	-	-
<b>Erljiozkoak</b>	-	0,4	-	-
<b>Bestelakoak</b>	13	6	15	16

Iturria: PEÑAFIEL, Carmen, CASADO, Miguel Ángel eta FERNÁNDEZ, Lidia (2003): “La programación radiofónica en el País Vasco”, *Telos*, **57**, 85-97 orr.

Estatu osorako emititzen diren irrati horien emisioa nahiko zentralizatua da, eta gutxi batzuk besterik ez dira tokian-tokiko emisorei uzten dizkieten tarreak (emisio-orduen %18 SERen kasuan, eta, gutxien, RNEren kasuan, %5). Edozelan ere, informazio lokalak duen estimu sozialak edo publizitate lokala justifikatzeko egin behar izaten dituzten deskoneksioak direla eta, lehen aipatu ditugun hiru genero nagusiak (Magazina, Informazioa eta Kirolak) dira denbora gehien betetzen dutenak. Ondoko taulan, gainera, agerian uzten da zein desberdina den genero batzuen presentzia deskoneksio lokaletan (L) eta EAera eginikoetan (A).


**Estatu osorako irratiaren deskoneksioen eskaintza; generoka; astelehenetik ostiralera (2002)**

	SER		RNE		COPE		Onda Cero	
	L	A	L	A	L	A	L	A
<b>Informazioa</b>	30,4	36,4	-	100	20	100	5,4	100
<b>Magazina</b>	47,8	54,5	-	-	60	-	46	-
<b>Kultura</b>	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Kirolak</b>	21,8	9,1	-	-	20	-	48,6	-
<b>Musika</b>	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Erljiozkoak</b>	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Bestelakoak</b>	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: PEÑAFIEL, Carmen, CASADO, Miguel Ángel eta FERNÁNDEZ, Lidia (2003): “La programación radiofónica en el País Vasco”, *Telos*, **57**, 85-97 orr.

1979ko Autonomia Estatutuaren itzalpean sortu ziren irrati publikoen eskaintza sakonduko dugu ondoren. Horetarako, orotarikoak diren irratiak hartu eta 2002ko maiatzean izan zuten programazio-taulako generoak portzentualki erakutsiko ditugu (Peñafiel, Casado eta Fernández, 2003).

**EAEko irrati autonomikoen eskaintza; generoka; astelehenetik igandera (2002ko maiatza) (Peñafiel, Casado eta Fernández, 2003).**



Grafikoan ikus daitekeen bezala, eskaintzari dagokionez, irrati bakoitzak baditu oso berezko elementuak. Hala nola, Radio Euskadin oso maila bertsuan daudela Informazioa eta Magazina eta atzerago daudela beste hiru: Kirolak, Musika eta Kultura. Aldiz, Euskadi Irratian, Magazina jartzen da guztien gainera. Gero datoz, paretsu, Informazioa eta Musika. Kirolak portzentaia baxuena du konparagarri ditugun hiru irratiarten artean. Azkenik, eta Radio Vitoriaren eskaintza errepetatuz, Magazinarekin garrantzia azpimarratu beharra dago. Genero horren ia erdira ez da heltzen Informazioa eta, noski, askoz atzerago datoz Musika eta Kirolak.

Amaitzeko, EAEko beste irrati batzuen eskaintza zelakoa den ikusiko dugu ondoko taulan. Horien artean, desberdintasunak dira nagusi, beste batzuen artean, jabeagan, emisio-eremuan, erabiltzen duten hizkuntzan eta baita helburuetan ere oso desberdinak direlako.



## Beste irrati batzuen eskaintza; generoka; astelehenetik igandera (2002)

	Radio Popular de Bilbao	Bizkaia Irratia	Radio Nervión	Arrasate Irratia	Herri Irratia	Arrate Irratia
<b>Informazioa</b>	13	4	-	12	16	4
<b>Magazina</b>	48	22	40	17	31	10
<b>Kultura</b>	11	4	-	-	6	-
<b>Kirolak</b>	15	-	7	-	9	2
<b>Musika</b>	8	11	8	70	32	77
<b>Erlizkoak</b>	4	2	-	-	1	6
<b>Haurrentzakoak</b>	-	-	-	-	-	-
<b>Bestelakoak</b>	1	Formatu itxikoa: 56+1	Formatu itxikoa: 42+3	1	5	1

Iturria: PEÑAFIEL, Carmen, CASADO, Miguel Ángel eta FERNÁNDEZ, Lidia (2003): "La programación radiofónica en el País Vasco", *Telos*, 57, 85-97 orr.

#### 4. BIBLIOGRAFIA

- Betés, K. (2004): “El mercado de la emisora: la publicidad”, in Martínez-Costa, M. Pilar eta Moreno, E. (koor.), *Programación radiofónica. Arte y técnica del diálogo entre la radio y su audiencia*, Ariel, Bartzelona, 213-247.
- Cebrián, M. (1983): *La mediación técnica en la información radiofónica*, Mitre, Bartzelona.
- , (1994): *Información Radiofónica. Mediación Técnica, Tratamiento y Programación*, Síntesis, Madril.
- CIS (2000): Barómetro de julio. Estudio 2396. <<http://www.cis.es>>
- , (2003): Barómetro de octubre. Estudio 2541. <<http://www.cis.es>>
- EBU-UER (2001): “EBU System Of Classification Of RTV Programmes (ESCORT 2.4)” izeneko txostena. EBU-UER (European Broadcasting Union/Unión Europea de Radiodifusión/Union Européenne de Radio-Télévision) <[http://www.ebu.ch/tech\\_info\\_escort.html](http://www.ebu.ch/tech_info_escort.html)>
- Echevarría, R. (2002): “SER, ONDA CERO, RNE1 y COPE controlan el 82% del mercado de la radio generalista”, in GECA, *El anuario de la televisión-2003*, GECA, Madril, 204-219.
- , (2004): “La radio consigue su mayor consumo histórico”, in GECA, *El anuario de la televisión-2004*, GECA, Madril, 178-190.
- Faus, Á. (2001): “La radio en el etorno cambiante del siglo XXI”, in Martínez-Costa, M. P. (arg.), *Reinventar la radio. Actas de las XV Jornadas Internacionales de la Comunicación*, Eunate, Iruña, 15-37.
- Franquet, R. (2003): “La radio aante la digitalización: renovarse en la incertidumbre”, in Bustamante, E. (koor.), *Hacia un nuevo sistema mundial de comunicación*, Gedisa, Bartzelona, 139-165.
- Gutierrez, A. (2001): *Ekoizpena eta Errealizazioa Irratian*, UEU, Bilbo.
- Gutiérrez, M. eta Huertas, A. (2003): “La programación de las radios generalistas en España”, *Zer*, **15**, 117-135.
- Lagardere Active Publicité (2003): “Guide de la radio 2003-2004” dokumentua <<http://www.lagardere-active-pub.com>>.
- Martí, J. M. (1990): *Modelos de programación radiofónica*, Feed Back, Bartzelona.
- , (1997): *La Ràdio a Catalunya*, Centre d’Investigació de la Comunicació, Bartzelona.
- , (2000): *De la idea a l’antena. Tèchniques de programació radiofònica*, ECSA, Bartzelona.
- , (2004): “La programación radiofónica”, in Martínez-Costa, M. P. eta Moreno, E. (koor.), *Programación radiofónica. Arte y técnica del diálogo entre la radio y su audiencia*, Ariel, Bartzelona, 21-45.

- Martinez-Costa, M. P. (2001): “Un nuevo paradigma para la radio sobre convergencias y divergencias digitales”, in Martinez-Costa, M. P. (arg.), *Reinventar la radio. Actas de las XV Jornadas Internacionales de la Comunicación*, Eunate, Iruñea 57-63.
- , (arg.) (2001): *Reinventar la radio. Actas de las XV Jornadas Internacionales de la Comunicación*, Eunate, Iruñea.
- , eta Moreno, E. (koor.) (2003): *Programación radiofónica. Arte y técnica del diálogo entre la radio y su audiencia*, Ariel, Bartzelona.
- Norberg, E. G. (1998): *Programación radiofónica: estrategias y tácticas*, IORTV, Madril.
- Ortiz, M. A. eta Volpini, F. (1995): *Diseño de programas de radio*, Paidós, Bartzelona.
- Pedrero, L. M. (2000) (arg.): *La radio musical en España*, IORTV, Madril.
- Peñafiel, C. (1992): *Las radios autonómicas y transformaciones de la radio entre 1980-1990*, EHU, Leioa.
- Peñafiel, C.; Casado M. A. eta Fernández, L. (2003): “La programación radiofónica en el País Vasco”, *Telos*, **57**, 85-97.
- RTVE (2003): *Informe Anual sobre el Cumplimiento de la Función de Servicio Público del Grupo RadioTelevisión Española en 2002*, RTVE, Madril.
- Salgado, C. (2004): “La programación en la radio español. Análisis de las parrillas de programación 2002-2003”, Martinez-Costa, M. P. eta Moreno, E. (koor.), *Programación radiofónica. Arte y técnica del diálogo entre la radio y su audiencia*, Ariel, Bartzelona, 250-291.
- Zabaleta, I. eta Zalakain, J. M. (2004): *Informazioaren teoria eta teknika irrati eta telebista digital eta analogikoan*, UEU, Bilbo.

## 5. GEHIGARRIAK

### INTERESEKO WEBGUNEAK



- BBC (British Broadcasting Corporation)  
 <<http://www.bbc.co.uk/heritage/story/1920s.shtml>>
- Bilboko Herri Irratia-Radio Popular de Bilbao <<http://www.radiopopular.com>>
- Bizkaia Irratia <<http://www.bizkaiairratia.com>>
- Chérie FM <<http://www.cheriefm.fr>>
- CIS (Centro de Investigaciones Sociológicas) <<http://www.cis.es>>
- Comfmpro <<http://www.comfmpro.com>>
- EBU-UER (European Broadcasting Union / Unión Europea de Radiodifusión / Union Européenne de Radio-Télévision) <<http://www.ebu.ch>>
- EITB (Euskal Irrati-Telebista) <<http://www.eitb.com>>
- Europe 1 <<http://www.europe1.fr>>
- Europe 2 <<http://www.europe2.fr>>
- France Inter <<http://www.radio-france.fr/chaines/france-inter/direct/>>
- FUN <<http://www.funradio.fr>>
- GECA (Gabinete de Estudios de Comunicación Audiovisual Consultores)  
 <<http://www.geca.es>>
- Herri Irratia <<http://www.herri-irratia.com>>
- Lagardere Active Publicité <<http://www.lagardere-active-pub.com>>
- Lefilradio <<http://www.lefilradio.fr/index>>
- Los 40 Principales <<http://www.los40.com>>
- Nostalgie <<http://www.nostalgie.fr>>
- NRJ <<http://www.nostalgie.fr>>
- Radioactu <<http://www.radioactu.com>>
- Radio Andalucía Información <<http://www.canalsur.es>>
- Radio ECCA <<http://www.radioecca.org>>
- Ràdio Estel <<http://www.radioestel.com>>
- Radio Marca <<http://www.marca.com/radiomarca>>
- Radio María <<http://www.radiomaria.es>>
- Radio Nervión <<http://www.radionervion.com>>
- Ràdio Salut <<http://www.radiosalut.com>>
- Radio Santa María de Toledo <<http://www.architoledo.com>>
- RFM <<http://www.rfmradio.fr>>
- Rire et Chansons <<http://www.rireetchansons.fr>>
- RNE 5 <<http://www.rtve.es/rne/r5/index.htm>>
- RTL <<http://www.rtl.fr>>
- RTL2 <<http://www.rtl2.fr>>
- RTVE (Radio-Televisión Española) <<http://www.rtve.es>>
- Skyrock <<http://www.nostalgie.fr>>
- Sud Radio <<http://www.sudradio.fr>>